



Erabili goldea hilen hezurren gaietik Olga Tokarczuk

Liburua esaldi honekin amaitzen da: "Nolanahi ere, badakit oraindik denbora asko geratzen zaidala". Eta juxtu istant horretan, pentsamendu hau etorri zait burura: "Bada niri gero eta denbora gutxiago geratzen zait eta ez dut zurekin alferrik galdu nahi".

Zer esan nahi du horrek? Esan nahi du liburua ez zaidala bereziki erakargarria gertatu. Egile honi liburu bat irakurri diot. Horrekin, nahikoa eta sobera, printzipioz.

Ondo euskaratuta dago. Eta alde horretatik, balekoa zait. Argituko dut hau. Itzultzailea naiz, eta neure itzulpenetako asko euskarara egiten ditut. Euskaraz irakurri beharra daukat. Nire "bazka" da, nolabait esateko. Euskaraz irakurtzeari utziko banio, "nire" euskara ahuldu egingo litzateke. Beraz, irakurketarik gehienak euskaraz egiten ditut. Gainera, euskaraz irakurtzeak motibatu egiten nau; eta irakurtzen dudana zenbat eta interesgarriagoa izan, orduan eta hobe, niretzat. Hala ere, liburuen gaiez harago, euskaraz irakurtzea berez niretzat garrantzitsua da, "zerbait" da. Egia esan, asko da.

Zer ez zaidan gustatu liburu honetaz? Gauza askotxo. Planteamendua bera, pertsonaiak, asmoak, esaten dena, esaten ez dena... Edota txikikeriak. Esaterako, izen baten edo izenondo baten lehen hitza letra larriz jartzeko mania ulergaitz hori, zeinak berehala erakarri zidan arreta. Azken batean, zer nabarmendu nahi du horrekin idazleak... hitzekin espresatu ezin duena? Funtsik gabea, gustu txarrekoa iruditu zait, benetan. Halako batean, narrazioaren une jakin batean, izen propio modura idatzitako hitz arruntak ia-ia erabat "desagertzen dira", egilea bera ohartu izan balitz bezala zeinen desegokia zen.

Bestalde, pertsonaia nagusia karakterizatzeko, protagonista nagusia "horoskopoetan aditu" moduan aurkeztea besterik ez zaio bururatu liburuaren egileari. Hori, berez, barra-barra erabilitako baliabide bat da. Hamaikatxo bat aldiz ikusi izan dugu gidoietan eta filmetan. Ez da oso originala, nolabait esanda. Hori bai, protagonistaren alderdi "*bizarre*"ak zuritzeko, egileak bat-batean zera botatzen digu: protagonistak, hurrei ingeles eskolak ematen hasi baino lehen, ingeniari lan egin zuela. Ez dut gogoratzen zein ingeniari-tza mota zen. Berdin dio zeinek. Protagonistaren ahalmen intelektualei buruz egon litekeen eztabaida oro "erabakita" utzi nahi izan balu bezala edo. Horrek, noski, ez darama inora. Izan ere, ikasketa onak zituzten pertsonaia negatibo asko izan dira munduan: Mengele doktorea, Radovan Karadžić, e.a. Beraz, norbaiten —kasu honetan pertsonaia baten— gabeziak "estaltzen" saiatzea haren curriculum akademikoa hizpidera ekarriz, ez da oso burutsua. Eleberri batean —bizitzan bezala— frogatu behar duzuna egitateen bidez frogatu behar duzu, eta ez curriculum akademikoaren bidez.

Horretaz aparte, liburuak ez du jakin narrazioaren "suspenseari" eusten. Garbi zegoen "hiltzailea" Janina zela. Horregatik, egilearen buru-argitasuna edo zorrotasuna agerian utziko zuen zerbait ustekabean gertatzea espero nuen. Baina, baita zera ere. Agian, haren hurrengo liburuan...

Liburuaren ideia orokorra basa animaliekiko eta etxe animaliekiko begirunea da. Erabat ados horrekin. Ez naiz beganoa; hala ere, aspalditik saiatzen naiz okela gehiegi ez jaten, hainbat arrazoiengatik. Eta basa animalien kasuan, badakigu haien haragia ez dela giza kontsumorako egokia, oro har; beraz, basa animalien biziraupena ziurtatzera bultzatzen gaituzten arrazoiak bestelakoak dira. Horrekin ez dut arazorik bat ere. Baina protagonistaren jarrera gehiegizkoa da. Bakarrik faltatu zaio eliza osoari su ematea, herri osoa —haurrak barne— bertan zeudelarik; zeren, noski, nola denek zuten gogoko orein-okela jatea... Horrela, behintzat, "Carrie" filmaren halako "remake" bat egiteko aukera izango zuen (Stephen King-en nobelan oinarritutako filmaz ari naiz).

Pertsonaien karakterizazioa nahiko eskasa iruditu zait. Egia esan, karakterizazioa baino gehiago, karikaturizazioa dela esango nuke. Eleberrian agertzen diren gizonezko pertsonaiak karikaturak dira, egilearen intenzionalitate kontziente edo inkontzientearekin (hark jakingo du). Janinak berak ere ez dirudi benetakoezia denik.

Liburuaren poetika batzuetan gustatu izan zait, baina orokorrean merke samarra iruditu zait.

Irakurri ahala, behin baino gehiagotan, hitz bat etorri izan zait burura: "hitzontzikeria". Eta denok badakigu zer gertatzen den hitzontzikeriarekin: trumoi asko, eta euri gutxi.

Topikoak esplotatzen dituen liburu bat da, badu ukitu sektario bat, eta planteatuta dagoen bezala, ez dut uste aparteko baliorik transmititzen duenik: indarkeria absurdo bat, askoz gehiagorik ez (bere ideia xelebreekin bat ez datozenak "garbitu" egiten baititu — arrazoiz ala arrazoirik gabe— Janina protagonistak).

Amaieran, protagonista nagusiaren (ez dakit bat baino gehiago benetan ba ote dagoen) lagun-talde arraroak herrialdetik eta justiziatik ihes egiten laguntzen dio, arima eta gorputz jarraitu ahal izan dezan... ez dakit... basurde-ehiztari guztiak sistematikoki akabatzen (eskerrak ez zen Asterix eta Obelix-en garaietan jaio, lanik gabe utziko zituzkeen-eta Zesarren legioak).

Liburuaren atzean honako asmo hau dagoela ematen du: "Ea liburuarekin film bat egiten duten eta etekintsua gertatzen zaidan". Hau da, ea best-seller bihurtzen den. Gaur egun, ordea, denok dakigu best-seller guztiak ezpal berekoak direla. Niretzat, hori, literatura komertziala egitea da. Kontuz, badu meritua eta. Baina...

Literatura Nobel saridun batengandik gehiago espero nuen. Askoz gehiago espero nuen. Amélie Nothomb-i, esaterako, eman ziezaioketen Nobel saria. Bera bai idazle handia. Idazle handia gaur, eta idazle handia etzi. Azken batean, kontua horretan datza — batez ere, literatura Nobel saridunak aukeratzeko orduan.

Polonia nahiko herrialde kontserbadorea da, eta egile honek anti-establishment moduko planteamendu bat egiten du. Horri ondo deritzot. Baina, idazle bezala bera, eta irakurle bezala ni, ez gatoz bat. Surfean aritzeko arrazoi ezberdinak dauzkagu.

Dena den, liburu hau euskaraz irakurri ahal izateagatik esker oneko sentitzen naiz. Nik ez daukat familia super euskaldun bat; ez daukat super euskaldunez osatutako lagun-talderik. Nire familia euskalduna eta nire adiskide euskaldunak nire liburuak dira gehienbat. Haiekin egiten dut euskaraz. Eta haiei esker pentsatzen dut eta bizi naiz euskaraz. Beraz, euskaraz ondo idatzitako edozein produktu nire "senide-taldearen" eta nire "lagun-taldearen" parte izatera igarotzen da, eta gainera, euskaraz egunero egiten ditudan itzulpenetako bakoitzean zerbait uzten dute nire irakurraldi horiek.

Bestalde, irakurtzen dudan liburu bakoitzarekin sor dakizkidakeen harremanak ugariak bezain askotarikoak dira: zurrunbilotsuak, alaiak, lehegarriak, melankoniatsuak, hotzak, gorrotozkoak, txeratsuak, zalantzazkoak, asaldagarriak, paroxismoraino iristeko modukoak...

Esan dezagun, bidenabar, liburu hau irakurri izatea ez zaidala inondik ere damu izan, hiru arrazoiengatik: lehenik, euskaraz irakurtzeak plazera eman didalako; bigarrenik, liburu bat irakurtzen hasten naizenean bilatzen dudan dialektika hori nigan piztu delako; eta hirugarrenik, izadiarekiko krimenek protagonistarengan eta egilearengan sorrarazten duten haserrea edo sumina ulertzen eta partekatzen dudalako.

Ikusten duzueenez, nik ere badut "xede bat" neure bizitzan: irakurtzea. Bestalde, dagokidan "misterioari" buruz Janinari — Duszekjo andreari— galdetuko banio, Capricornusek konstelazioetan daukan posizioari begirada bat bota eta segituan emango luke erantzuna.

Eta nik zera pentsatuko nuke neure artean: "Uf...".

